



GAZTELUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Administrari laguntzaile plaza lehiaketa sistema bidez betetzeko hautaketa-prozesuko informazioa

2024ko urriaren 1ean Gazteluko udaleko administrari laguntzaile plaza bat, C2 taldean sailkatua, lehiaketa bidez betetzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako hautaketa prozesuaren barne merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak argitaratu dira.

Horregatik, oinarrietako 12. puntuari jarraiki, proposatutako hautagaiak 20 egun balioduneko epean, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espeditente bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik berezita ez dagoela adierazten duen adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-kausaren batean ez egotearen adierazpena.
3. Korporazioak zehazten dituen mediku-zerbitzuek emandako mediku-ziurtagiria, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Desgaitasuna duten izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna eta izaera hori egiaztatzen dituen.
4. Alegatutako betekizunen eta merezimenduen jatorrizko agiriak, kopia konpultsatuak edo baliokidea aurkeztea, aldez aurretik kopia sinple baten bidez aurkeztuta.

Gaztelun, 2024ko urriaren 2an.
Alkatea